

# BALENDIN ENBEITA

## BERTSOPAPER-LEHIAKETA

XV. EDIZIOA

### BERTSO SORTA SARITUAK

Mendipe baten dago  
Uspitxa Jauregi,  
nere txikitxutako  
jolasen lantegi.  
Pozik egingo neukez  
idazten urte bi,  
zenbat maite zaitudan  
azaldu banegi!

Balendin Enbeita

## Bizi hurren

Doinua: *Hor bide eguzkitsu bat*

1

Nola kantatu nahi diet  
bi titiburu iluni?  
Oritzari, karenari,  
milaka ehun biguni?  
Zer, gorputz arrotzu bati?  
Zer, garun bete lurruni? (Bis)  
Hainbeste amets urruni?  
Neurtzen didate zenbat ur,  
zenbat pisu, zenbat burni...  
Bitartean zu zaitut hats,  
zu birika eta zu mihi  
nik zu zaramatzat baina  
berez zuk naramazu ni.  
Berez zuk naramazu ni,  
zu birika eta zu mihi.

3

Uda heltzear denean  
zer da goia, zer da behea?  
Ez banaiz gai ikusteko  
jada nire oin parean.  
Batera barrentzen zaizkit  
indarra, ahuldadea (Bis)  
ekaitza eta barea.  
Uhin amniotikoetan  
arrainak eta harean  
kulunka sumatzen ditut  
igo delako marea  
bi bular eta zilbor bat  
sakonerarik gabea.  
*Sakonerarik gabea*  
*igo delako marea.*

2

Negua luze joan zen  
barreneko mintzei mintzo,  
lotzen ninduten beldurrak  
aitortu nizekizun zintzo.  
Udaberriz hodeiak mehe,  
itsasoa intsumiso. (Bis)  
Eta zelaiak nartziso.  
Adi-adi pasa ditut  
–hori nuen konpromiso–,  
ildaskaz ildaska eta  
dardarizoz dardarizo,  
hogeita hemeretzi aste  
zu zaren gorputz honi so.  
*Zu zaren gorputz honi so*  
*dardarizoz dardarizo.*

4

Kalean ez dut sekula  
horrenbeste irri batu...  
Jakin nahi ez nituenak  
dizkidate deskribatu;  
uste, iritzi, aholku  
eta epai hibridatu. (Bis)  
Ezpainak nola bridatu?  
Jendearen begiradak  
azalean transkribatu,  
inork baimendu gabeko  
zenbat esku inskribatu  
niretzat nahi zaitut baina  
noiztik ez zara pribatu?  
*Noiztik ez zara pribatu?*  
*Zenbat esku inskribatu.*

## XV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5

“Ama onak” ez du inoiz  
ukatuko babesperik  
ez da espero proiektu  
berrietan babesterik,  
nobela bat idazterik,  
tabladuan abesterik; (Bis)  
sormenezko erbesterik.  
Niri ikara sortzen dit  
hainbeste asmo eskegik  
munduak oihukatzen dit  
nik egin gabe eskerik  
ez naizela zain dagoen  
emakume bat besterik.  
*Emakume bat besterik  
nik egin gabe eskerik*

7

“Ama izan nahi al duzu?”  
neure buruari galde  
egin nion eta baietz  
batek egin zidan alde.  
Diskurtso haragituak  
kontraesanen lurralde (Bis)  
bizipenetan ahalge.  
Erabaki zintudanez  
nire zalantzez bestalde  
inoiz ez naiz sentitu hain  
erraiak alderik alde;  
subrogatzearen aurka,  
abortatzearen alde.  
Abortatzearen alde  
erraiak alderik alde.

9

Gaurko ziurtasun eza  
bihar-etzirako abal,  
bizitzeko aukera bat  
ezin litekeena gal,  
soin honek egingo badu  
erdigunea arrabal (Bis)  
emozioen karnabal.  
Beso-zabalik agurtu  
nahi ditut bi begi zabal  
sabel barrendik irtenda  
zure ezin, nire ahal  
irrikaz naukazu laster  
bihurtu zaitezen magal.  
Bihurtu zaitezen magal  
*nire ezin, zure ahal.*

6

Desiraren eta arau  
ezarrien bereizketan,  
gizartetik heltzen zaidan  
ahotsaren bikoizketan,  
eredu zurrunen eta  
idealen eraisketan (Bis)  
belarriak berriz ketan.  
Liburuen azpimarrak  
zabuetan, txirristetan...  
Haur-parke hustu bateko  
zuhaitz baten gerizpetan  
hiru ordu daramatzat  
Adrienne Richekin hizketan.  
Adrienne Richekin hizketan  
zuhaitz baten gerizpetan.

8

Zu hazi ahala mamuak  
bilakatu dira ñaño  
astekako zenbaketak  
ekarri gaitu honaino.  
Gaur pausoa nekezago  
daramat labarreraino (Bis)  
aurreko aldi bano.  
Banku honetan eseri naiz  
—banku bera da gaurdaino—  
zeru urdinetik zintzilik  
kaio bat eta bi laino  
izpiz izpi sar dakizun  
eguzkia barruraino.  
Eguzkia barruraino  
kaio bat eta bi laino.

10

Siesta usaindun bazkaloste,  
insomniozko gauerdi,  
lo-kanta inprobisatu  
diren hiru-lau hitzerdi.  
Egunak astiro doaz,  
badoaz eta, gaitzerdi, (Bis)  
gauak baitira bider bi.  
Teorian argi daukat  
nola nahiko nukkeen erdi.  
Oraindik osorik gaude  
odol-jario, izerdi...  
sentitzen duzun unean  
egin gaitzazu bi erdi.  
Egin gaitzazu bi erdi  
*odol-jario, izerdi...*

## **Izerdiaren pisua**

**Doinua: *Neska zaharrak eta apaizak I (7 puntura moldatua)***

1

Jokalariak trabesa edo  
ardo hordiak aina  
zaletasunei tamaina  
hartu gabeko kirolariak  
dute osasun labaina  
lanetik irten eta gauero  
zapaltzeak mendi gaina  
serotonina ordaina  
albokoari darionean  
jasanezina da baina  
hainbesterako ez da norbere  
izerdiaren usaina.

3

Kilometroa lau minutuan  
Behobiak bagenitu  
gihar laktatoz eritu  
batzuekin sei orduz Kebrantan  
kronometroa gelditu  
ezkaratzeko onena nor den  
Stravak dakar ediktu  
wattioei obeditu  
zenbakietan neurtutakoan  
dorsalak bihurtzen ditu  
buru gaixodun gorputz sanoak  
txalo jotzeko meritua.

5

Arroz aleak gramotan neurtuz  
kaloria aurrezteak  
hautsa, gelak probesteak  
gantz portzentaia orekatzeko  
dietaren erbesteak  
urteko, Rueda edo Verdejo  
dabilzanean besteak  
ur botilaren eskeak  
gizen beldurrez edanagatik  
zerbezaren orde teak  
astunagoak dira baskulan  
korapilodun hesteak.

2

Errutinaren ihesbideak  
crossfita gimnasioa  
ariketa sesioa  
gogorik gabe entrenatzea  
plangintzaren prezioa  
lasterkarien pausora lehiak  
dakar motibazioa  
dosiaren desioa  
kontrolatuta daukanarentzat  
ez baita adikzioa  
larunbatero helmuga marrak  
sartzeko afizioa.

4

Kaskoa aero-dinamikoa  
zeraamikazko gurrupilak  
likrapean soin bipilak  
diskodun galgak Ultegrarekin  
Boa kalen maratilak  
zorionean inbertsioa  
onartzen badu kartilak  
bizikletari sei milak  
profesionalak bailiran janzten  
dituzte amateur pilak  
bidegorrian paseatzeko  
karbonozko zapatilak.

6

Huts egindako entrenamendu  
planaren penitentzia  
porrota da sententzia  
seriean ez badagokio  
pendizari potentzia  
arrakastatik dezepziara  
arteko diferentzia  
diziplina konstantzia  
alferrentzako aitzakia da  
nekearen lizentzia  
zangoak minez hasitakoan  
lasaitzen da kontzientzia.

## **XV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA**

7

Orduetako prestatze lanak  
familia apostuak  
zaintza ezin adostuak  
haurrak eskutan podiumeko  
argazkiekin poztuak  
balantzan jarriz gero merezi  
duen denbora kostuak  
uzteko arrapostuak  
erlojuari harramazkatuz  
saillapeneko postuak  
segundo batzuk seme alaben  
etxeko lanei ostuak.

9

Belaunek tripa jotzen badute  
teknologia arina  
piztutakoan Garmina  
abiaduran nabarmentzen da  
hamarkaden eragina  
gaztetan lortu zitezken markak  
oroitzearen samina  
jasateko gai bagina  
dekadentzian duin onartzea  
bakoitzak bere adina  
ordekan pozik ibiltzea da  
noizbait aldapan adina.

8

Injustizia genetikoak  
podiumaren defentsan  
garaikurrik ez despentsan  
galtzailearen itxaropena  
lanari aintza promesan  
poz iragankor baten usteak  
garaipenaren jabetzan  
zoriona ekar zezan  
gailurreraino iritsi denak  
baizik ez lezake esan  
nola loriak ibilitako  
bidezidorrean zetzan.

10

Bikote, lagun edo lankide  
kontzentrazio estutik  
mintzagai bera eskutik  
errendimendu kontrolak ez du  
harreman sareez tutik  
sasoia xede, salbatu ordez  
ohitura osasuntsu bik  
lesioaren izutik  
bizimodua eraiki bada  
ardaztua kirol sutik  
pultsazioak jaitsitakoan  
zerk eutsiko dio zutik?

## Anaia galduari

Doinua: *Urretxuko semea*

*Inaxi Urbiztondo Maiza bertsolaria Ataungo Aintzaudietatxiki baserrian jaio zen 1881eko uztailaren 31n, San Inazio egunez. Historiako beste emakume bertsolari asko bezala bere ezaguerarik ez geneukan birbiloba batek haren berri ematea erabaki duen arte. Inaxiren bertso lan guztiak ere galdu egin dira garaian inork jaso ez zituelako.*

*Inaxik bertso zahar mordoska omen zekien, eta buruz kantatzen omen zituen batere erratu gabe. Tartean bere bizitzako pasarteei jarritako bertso sorta luzeak ere ba omen ziren. Sorta horietako batek bereiziki hunkitzen omen zuen, 1891ko negute gogorrean galdu zuen anaiari buruzko istorioa kontatzen zuen bertan.*

1

Pentsamendua daukat  
urrungo garaitan  
mila zortziehun ta  
laurogeita hamaikan  
bi oinatz galdu ziren  
mendiko zelaitan  
anaiaren urratsak  
elur-ekaitz haitan...  
bi oinatz galdu ziren  
mendiko zelaitan  
betiko arrastoa  
utziz nire baitan.

3

Aise sartu zen haize  
izoztua nigan  
eldarnioak ere  
eragin zizkidan  
botika ba omen zen  
lruñeko jiran  
propio eskatu nuen  
inor ez zedin joan  
botika ba omen zen  
lruñeko jiran.  
Joakintxok esan zuen:  
joaten utzidan.

2

Negute beltza bazen  
urte hartakoa  
oraindik beltzagoa  
zen Aralarkoa  
haizea ekarri zuen  
izoztutakoa  
nire birikek jaso  
zuten zartakoa  
haizea ekarri zuen  
izoztutakoa  
haren obra da gero  
etorritakoa.

4

Ataundik Iruñera  
zer distantzi dago?  
oinez baldin bada ez  
jakinda nahiago  
Joakin, artzain lanetan  
jarduna lehenago  
-hamasei urte dauzkat  
kurtituta nago!-  
Joakin, artzain lanetan  
jarduna lehenago  
zutunik ez genuen  
ikusi gehiago.

## XV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

5

Bihotzak zebilkion  
odola zainean  
zerumuga bakarra  
beraz, Iruñean  
artilezko beroki  
ziztrin bat soinean  
buruan txapela ta  
abarken gainean  
artilezko beroki  
ziztrin bat soinean  
arreba salba zedin  
epe ertainean.

7

Itzuleran iluna  
egin zen orduan  
elur ekaitz bortitz bat  
lehertu zen zeruan  
ezin zuen jarraitu  
paraje ganduan  
ta esna mantendu behar  
ahal zen moduan  
ezin zuen jarraitu  
paraje ganduan  
ta harmonika jo zuen  
haitzarte galduan.

9

Ageri ez zenean  
bosgarren egunez  
koadrila osatu zen  
hamar bat lagunez  
Aralarren barrena  
bekozko ilunez  
bizirik ote dago?  
Nun bilatu? Nun ez?  
Aralarren barrena  
bekozko ilunez  
zalantzari zor zaion  
erantzunkizunez.

6

Bi eguneko bidean  
ordeka ta aldapa  
Iruñera heldu zen  
galantak pasata  
botika hartu eta  
etxera presaka  
bere arreba txikia  
gogoan bueltaka  
botika hartu eta  
etxera presaka  
-eutsi, Inaxi, banoan  
ez dun ezer falta!-

8

Aralar oro zelai  
harizti, pagadi...  
tartean harmonika  
zahar bat kantari  
soinua izoztu zen  
erdi salatari  
edertasun hartako  
minaren atari  
soinua izoztu zen  
erdi salatari  
bide emanez Joakinen  
azken arnasari.

10

Erantzuna orduak  
zekarten ordea  
han zetzan gorpu, haitzen  
arteko lorea  
harmonika ondoan  
zuri kolorea  
bizimin seinale zen  
haren adorea  
harmonika ondoan  
zuri kolorea  
eta nire botika  
zakuan gordea.

## **XV. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA**

11

Botika hartu eta  
ondu nintzen dena  
haren faltan gainean  
neukakeen azkena  
amustu zen barruko  
gaitzaren eztena  
baina malko gazitan  
beratzen ez pena...  
amustu zen barruko  
gaitzaren eztena  
orain bihotzean dut  
sendatzen ez dena.

12

Nun habil? Nora joan haiz?  
galderak zeuzkeat  
bi birika dizkiat  
dezente kosteak  
bizitza alu honen  
joera tristeak...  
hiregana naramak  
begiak ixteak  
bizitza alu honen  
joera tristeak...  
nirea luzatu dik  
hirea mozteak.



# LAU LETRATXO

*Doinua: Martxa baten lehen notak. Mikel Laboa*

Lau letratxo elkarren ondoan:

akronimoa da, brabo!

Eta atzean bertso-eskola bat...

barkatu, askoz gehiago!

A, L, B eta ondoan E,

ALBE lez ezagunago,

Trinok ta Andonik sortu zutena

gaur baino askoz lehenago.

Laurogeian sortu zuten eta,

ez ote dugu arraro

hainbeste urtez jardun izana

bertsogintzaren abaro?

Sekretutxo bat badauka, baina,

irauteak aroz aro,

ALBEn ahotsak ugari dira,

bihotza bakarra dago!

